

## PIRAGUISMOAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

### **1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.**

PIRAGUISMOA UR LASAIETAN  
SLALOMA

### **2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.**

EZ DAGO ALDAKETARIK

### **3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.**

#### **Lehiaketaren ezaugarri orokorrak**

- Irteera mailakatuak.
- Jende gehien biltzen den gunek mugatu beharko dira, hala nola irteera, ziaboga edo helmuga. Sarrera kontrola. Ahal den neurrian, noranzko bakarreko zirkulazioa.
- Irteeretan, itzaroten duten parte-hartzaileek segurtasun-tartea mantendu beharko dute ahal den guztietan.
- Ezin izango da helmugan gelditu, eta berehala utzi beharko da gunea
- Sarbide-kontrolatan neurriak indartuko dira; ezinbesteko langileak soilik sar daitezten lehiaketa-lekura eta inguruetara. Ahal den neurrian, noranzko bakarreko zirkulazioa (pantalanak, etab.).
- Kirolariak edo kirolari-taldeak prestatzeko edozein gunetan, bereizketa-gunek mugatu eta seinaleztatuko dira.
- Kirolariek ezingo dute material edo objektu pertsonalik partekatu, aurretik desinfektatu ez badituzte.
- Teknikariek, epaileek eta arbitroek uneoro erabili beharko dute maskara edo kirolariek uneoro erabili beharko dute maskara, ontziratu arte. Halaber, berriro jarri beharko dute lehorratzean, eta uneoro uretatik kanpo eraman.

#### **Taldeburuaren bilera**

- Taulatxoak itzultzean, desinfektatu egin beharko dira. Dorsalak itzultzean, garbitegi batera eraman behar dira garbitzera.

#### **Emaitzen kudeaketa eta arbitro-taldea**

- Arbitraje-taldeari eta emaitzak kudeatzeko langileei maskarak eman beharko zaizkie.
- Espazioaren arabera, edukiera mugatu beharko da, eta, gutxienez, ordenagailua eta inprimagailua dituen gune bat atondu beharko da, bi arbitroentzat eta emaitzak kudeatzeko pertsona batentzat.

### **Sari banaketa**

- Podiumetik kanpo banatzea, 1,5 m-ko distantziari eutsiz.

### **Erreskateak uretan:**

- Motorrak/laguntza-piraguak:
  - Pertsona bakarrarekin, laguntza-lanak egin ahal izateko.
  - Maskara behar bezala jantzita duen pertsona. Gel desinfektatzailea izango du.
  - Ahal den neurrian, T formako erreskate-teknika erabiliko du, urruntze sozialari eutsi ahal izateko.

### **Ontziratzea eta lehorreratzea**

- Uretara sartzea eta lehorreratzea lehiaketa ondoren: urruntze soziala eta txandak mantendu beharko dira. Boluntario batek koordinatu beharko du. Ahal den neurrian, noranzko bakarreko zirkulazioa.
- Helmuga zeharkatu ondoren, ezin izango da helmugan gelditu, eta berehala utzi beharko da gunea.

## **4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduerak.**

Teknikariek uneoro erabili beharko dute maskara, beren jarduera behar bezala garatzeko ahalegin fisiko handia egin behar duten jarduera edo egoeretan izan ezik (kirolariei motorrik gabeko ontzietan laguntzea, oinezko lasterketa, bizikleta, etab.). Edo kirolariek maskara erabili beharko dute uneoro, ontziratze arte. Halaber, lehorreratzean berriro jantzi beharko dute, eta uretatik kanpo eraman uneoro. Edo lehorreko egokitzapen fisikoaren kasuan (indar-lana, lasterketa, bizikleta, etab.), uretan entrenatzean bezala, kirolariek maskara erabili beharko dute uneoro, jarduera hasi arte, eta maskara berriz jarri beharko dute jarduera amaitzean eta beste leku batzuetara joan aurretik eta/edo beste kirolari batzuekin harremanetan jarri aurretik.